

Irakasgaiaren izena	Kodea	Ikasturtea
Hizkuntzen Trataera Bateratua	141225	2025-2026
Titulazioa	Maila	Sehilekoa
Lehen Hezkuntza Gradua	3	2
Irakasgai mota	ECTS Kredituak	Hizkuntza
Derrigorrezkoa	6	Euskara
Irakaslea		
Itxaso Vazquez Villa ivazquez@bam.eus		

Justifikazioa

Hizkuntzen Trataera Bateratua ikasgaiak Hizkuntzen Didaktika I eta II ikasgaietan egindako lanaosatzen du. Ikasgai honen ikuspuntua hizkuntzak eta arloak zelan bateratu izango da eta horrela erantzuna eman Euskal Curriculumari, zein ikastetxeen eskaerei, gurea lako gizarte eleanitz batean dugun erronkari erantzun egokia emanez.

Ikasgaia ikaskuntza eleaniztunaren oinarri psikopedagogikoetan eta Hizkuntzen Trataera Bateratuaren interbentzio ereduetan oinarritzen da. Horrez gain, Hizkuntza eta Arloen Ikaskuntza Bateratua ere kontuan hartzen du, bai kurrikuluaren planifikazioan, zein gelarako interbentzioaren diseinuan. Gainera, kontuan hartuko dira Ikasle etorkinen ezaugarriak, arazoak eta zailtasunak, eta Euskal Autonomia Erkidegoan kolektibo horri arreta emateko esku-hartzeak eta programak ezagutuko dira.

Aurrebaldintzak

Ez dago aurrebaldintzarik

Gaitasunak

Gaitasun orokorrak

- GO6: IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA.**

GO6.2.: Idatziz erraztasunez komunikatzea, testuaren edukia eta lagungarri grafikoak egituratuz, irakurlearen ulermena eta interesa errazteko, luzera ertaineko idazkietan.

ADIERAZLEAK:

- Zenbait elementu erlazionatzen ditu (datuak, iritziak, etab.) ondorioetara iristeko.
- Idazkiaren egitura lagungarri da ulertzeko.
- Edukiak transmititzeko hizkera egokia erabiltzen du.
- Irakurlearen interesa bereganatzen du.
- Edukiari eta irakurleari egokitutako taulak eta grafikoak jartzen ditu.

Berariazko gaitasunak

- **BG1:** Ikastetxeko proiektu komun eta konpartitu bat diseinatzea, garatzea, jarduerarako erreferente etengabe bezala erabiltzea eta ebaluatzea; proiektu horren helburuak eta ezaugarriak dira nesken eta mutilen arteko hezkuntza berdintza eta inklusioa sustatzea, estereotipo murriztatzaileak gainditzen saiatzea, balio demokratikoen arabera hezte, ingurumena errespetatzea eta irisgarritasun unibertsala lortzea.

ADIERAZLEAK:

- Proposamen kurrikularrak diseinatu dituen edukiak sekuentziazatuz hizkuntzen bateratzea eta hizkuntza eta arloen bateratzea kontuan hartuz.
 - Dikurso eredu ezberdinak kontuan harturik, hizkuntzen planifikazio kurrikularra antolatzen du.
 - Une ebolutiboa kontuan hartuta eta ebaluaketa irizpideak abilezia diskurtsiboen arabera deskribatuz, maila bakoitzari dagozkion ikaskuntza emaitzak ezaugarritzen ditu.
 - Diseinatu den kurrikulua garatzeko ikus-entzunezko baliabide egokiak aukeratzen ditu.
 - EAEn ikasle etorkinei harrera emateko eta inklusioan laguntzako dauden programak eta eragileak ezagutzen ditu: hala nola, hizkuntza indartzeko programak eta HIPlak.
- **BG2:** Ikaskuntza-egoera egokiak diseinatzea eta garatzea, bai norberaren kabuz eta bai beste irakasle batzuekin batera, talde bakoitzeko ikasleek eskura ditzaten bilatzen diren helburuak.

ADIERAZLEAK:

- Ikasleen aldetik estrategia autonomo eta aktiboak bultzatuz, aukeratu dituen gaitasunak lortzearen, proposamen metodologiko egokiak diseinatu dituen.
- Proposamen didaktikoak diseinatu dituen denbora eta espazioaren kudeaketaren inguruko hausnarketa kontuan hartuz.
- Lortu nahi diren gaitasunak ikasi eta lortzeko, behar diren TIK baliabide egokiak aukeratu eta erabiltzen ditu.



Garapen Jasangarriko Helburuen eta Laudato si' Helburuen presentzia ikasgai



4. GJH. Kalitatezko hezkuntza: Kalitatezko hezkuntza inklusibo eta bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzako aukerak bultzatzea guztientzat

Ikasgai honetan 2. eta 3. Ikaskuntza-helburu kognitiboak eta 1. Ikaskuntza-helburu sozioemozionala hizkuntza-ikaskuntzaren ikuspuntutik ikutuko dira. Hizkuntza gutxitua ardatz duen sistema eleaniztasunaren errola aztertuko da: alde batetik, hiritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzeko, beste aldetik, gaitasun eleaniztasuna ume guztientzako bermatzeko, umeen hizkuntza-esperientzia indibidualak abiapuntu hartuta. Kalitatezko hezkuntzak hizkuntzarekin lotutako desorekak eta desabantailak gainditzen nola lagundu ahal duen landuko da, umeen garapen osoa eta aukera-berdintasunen ikuspuntutik.

Era berean, irakasgai honek honako LSH zeharka ukituko du:



6. LSH. Hezkuntza ekologikoa.

Eskola-hezkuntza onak bizitza osoan zehar eragina izan dezaketen haziak jartzen ditu.

Edukiak

1. Ikastetxe mailako hizkuntza plana bateratua egiteko oinarriak.
2. Ikaskuntza eleanitzaren oinarri psikolinguistikoak.
3. Hizkuntzen Trataera Bateratuaren oinarriak.
4. Hizkuntzen curriculum bateratuaren planifikazioa eta proiektu integralak.
5. Ikasle etorkinei EAEko hizkuntza ofizialak irakasteko baliabideak

Ikas-irakaskuntza estrategiak

Ikaslearen esperientziak azalerratu: ikaslearen aurrezagutzak mobilizatu eta esperientziak azaleratzeko, ikasleen arteko eta irakasle-ikasleen arteko interakzio estrategia bultzatuko da. (%5-10)

Behaketa gidatua: Kasuen azterketa eta eredu ezberdinen konparaketaren bidez bideratuko da. (%25-35)

Kontzeptualizazioa: irakasleen azalpenetatik, zein testuen irakurketetatik, zein ideien bateratze saioetatik, zein kasuen azterketetatik, zein ariketa ezberdinetatik etorriko da. (%15-25)

Esperimentazio aktiboa: proiektuen diseinutik zein maila ezberdinetako zereginetatik etorriko da. (%25-35)

Ebaluazioa

Tresna hauen bidez ebaluatuko da:

- Gelako ekintzetan oinarritutako lanak.
- Bakarkako zein talde lanak, euren artean mapa kurrilular baten diseinua.
- Azterketak.

Adimen artifizialaren erabilera:

Jarduera hauetan: IHParen azterketan eta sekuentzia didaktiko eleaniztunetan, baimenduta dago adimen artifizialeko tresnak edo horien bidez sortutako edukiak erabiltzea, eta nahitaezkoa da dagozkien iturriak, erabilitako tresnak eta erabileraren deskribapena jasotzea.

Dokumentazioa

Apraiz Jaio, M.V., Pérez Gómez, M. & Ruiz, T. (2012). "La enseñanza integrada de las lenguas en la escuela plurilingüe", *Revista Iberoamericana de Educación*, 59, 119-137.

Arano, R.M., Berazadi, E. & Idiazabal, I. (1996). "Planteamiento discursivo e integrador de un proyecto de educación trilingüe". En Pujol Berché, M. & Sierra Martínez, F. arg., *Las lenguas en la Europa comunitaria II*. Amsterdam-Atlanta: Estudios Hispánicos, 18, 65-87 orr.

Arena, J. & Areny, J. (1997). "Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua". *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 24, 29-52.

Arnau, J., Comet, Vila, I. (2000) "La educación bilingüe: modelos y principios psicopedagógicos". In: *La educación bilingüe*. 11-18 orr. Barcelona: ICE/Horsori.

Barrientos, C. (1993). "La diversidad de contenidos como eje de secuenciación", *Aula de Innovación Educativa*, 14, 10-14.

Berritzegune de Leioa (2009). "El currículo de lenguas de la C.A.P.V. y el tratamiento integrado de lenguas". En <http://www.slideshare.net/AnaBasterra/tratamiento-integrado-de-lenguas-en-euskadi> (2011/12/02an azkenegoz ikusita).

- 4 / 4